



70. zk | 2019ko apirila

Berbarotarra



Kliklaz klika egingo dugu Korrika

Apirilaren 13an helduko da Korrika Durangora, 18:55ean. Bezperan, Korrika Txikia izango dugu herriko kaleetatik.



KORRIKA: Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia da. Korrika hasi eta amaitu arte, lekukoa pasatzen da eskuz esku eta kilometroz kilometro; lekuko horren barruan, euskaldun ezagun batek Korrika helmugara iristean idatzi eta irakurriko duen mezua gordetzen da, ordura arte sekretupean gordetzen dena. Ehunka mila lagunek hartzen dute Korrikak irauten dituen hamar egunetan.

Apirilaren 4an hasi da Garesen bi urterik behingo zita derrigorra Euskal Herrian. Gurera apirilaren 13an helduko da, "tipi-tapa tipi-tapa korrika" edo "iro-iro-iro astiro"! Korrika larunbatez helduko da Durangora, arratsaldeko 18:55ean, Gasteizen hurrengo egunean amaitu aurretik, beraz azkenengo txanpan egingo dugu korrika durangarrok. Asteburua dela aprobetxatuz, egun oso-

ko egitaraua antolatu du Korrika batzordeak: kale animazioa, Plateruena Kafe Antzokian bazkaria, argazki erraldoia ...

Korrika Txikiak ere klikatuko du Durango, apirilaren 12an, arratsaldeko 15:30ean, AEK-k, ikastetxeek eta Berbarok antolatuta. Jesuitak ikastetxean hasi eta San Antonio, Landako, Zaballara eta Neverseko ikasleek lekukoa eskuz esku pasatuko dute Durangotik egingo den ibilbidean, Kurutzia ikastolan bukatu arte. Amaiera borobila emateko, Berbaroko hezitzaileek sortu eta ikasleek asteetan prestatu duten Korrikaren "Klika" abestiko flashmovea dantzatuko dute.

Euskararen alde egingo dugu Korrika, euskararen alde egingo dugu izerdi, euskararen alde egingo dugu dantza, euskararen alde egingo dugu topa... zatoz gurekin zu ere !

Udalekuak prest ditugu!

Udalekuak prest, eta plaza guztiak beteta ditugu dagoeneko. Otsailaren 26an zabaldu genuen udalekuetan izena emateko epea, eta plaza gehienak astean bertan bete ziren.

5 dira Berbarok 2019. urteko udaldirako prestatu dituen egonaldiak; udaleku irekiak eta itxiak.

Udaleku irekiak, Udan Olgetan deritzenak, Durangon bertan egiten diren udalekuak dira, eta 3 eta 11 urte bitarteko umeei zuzenduta daude.

Udaleku itxietan berriz, finkoak eta ibiltariak eskaintzen ditugu, den-denak Durangaldeko mugetatik kanpora. Azken urteetan ohitura dugun legez, Uitzira eta Mendigorriara egingo dute bidaia etxeko txikienek uztailean; DBHko adinean dauden gaztetxoek berriz, Deban hasi eta Orion amaituko den ibiltarian, edo Durangon hasi eta Gasteizen amaituko denean parte hartuko dute.

Saso polita izaten da udaldia guztiontzat, eta are gehiago hemen, gurean. Mila dira egun horietan bizi ohi ditugun abenturak; lagun berriak egin, jateko ezberdina probatu, Euskal Herriko leku eta esperientzia anitzak ezagutu...

Oraingoan ez bada, hurrengoan zatozte eta proba ezazue!



Udaberri betea dugu zain, Berbaroren 30.urteurrena ospatzeko

Ekainaren 1ean egun osoko jaialdia egingo dugu, eta, horrez gain, urte osoan zehar bestelako kultur ekintza eta hausnarketa saioetan ere ikusiko dugu elkar

Urteak aurrera doaz; 1989an Durangoko euskaltzale talde batek Berbaro euskara elkarte sortzea erabaki zuenetik ez dira alperrik pasatu; 30 urte bete ditugu aurten, lanez, nekez, pozez, indarrez eta batez ere euskaraz beteriko 30 urte. Urteurrenean, atzera begira egindakoari errepasoa emango badiogu ere, aurrera begira jarri gura dugu; alde batetik, Durango euskalduntzeko gakoak ikusi eta Berbarok non eta zelan eragin behar duen hausnartzeko, eta, beste alde batetik, Berbaro zabaldu eta jendeari euskaraz parte hartzeko hainbat ekintza antolatze-ko.

Urteurren biribila ospatzeko egun handia ekainaren 1ean izango dugu; beraz, gorde data, bazkide. Aurrerago zehaztuko dizuegu egitarau osoa, baina egun osoko jaialdia prestatzen ari gara. Urteurrena, baina, ekainaren 1a baino askoz gehiago izango da; izan ere, urtea hasi zenetik hiru lerrotan gabiltza lanketa egiten: hausnarketa, ekintzak eta komunikazioa.

Hausnarketan, geroa aldean

Hausnarketari dagokionez, Durangoko euskaldunon bihar-etziko premiei begira jarri gara, eta bi gai nagusi jorratzen gabiltza: alde batetik, euskararen aldeko

mugimendua Durangon zelan suspertu pentsatzeko hausnarketa prozesua; eta bestetik, internet bidez Durangon eragingo duen proiektu bat sortzera bidean ematen ari garen hausnarketa.

Komunikazioa, zeresana daukagulako

Komunikazioari helduta, urteurreneko iruditegi berria sortzeaz gain, webgunea berritzen ari gara, zaharkituta ikusten genuen gure interneteko ataria berriztuko dugu, gure berri eduki gura duenak informazioa errazago topa dezan, sare sozialetan komunikatzen dugunarekin elkarlotuz. Bestalde, *30 Kontu* ekimena martxan jarri dugu: aurten hilak 30 dituen aldiro, arlo desberdinetan dabiltzan durangarrek euren arloa eta euskararen inguruko testua idatziko digute, eta Anbotoren webguneko komunitatean argitaratuko dugu. Horrela, euskalgintzarekin lotura zuzena ez duten Durangoko euskaltzaleak euskararen inguruko hausnarketak idaztera bultzatu gura ditugu.

Kultur ekintzak eta jaialdia

Urteurrenaren aitzakiarekin, euskaraz ondo pasatzeko ekintzak antolatzen gabiltza: lehiaketak, kultur ekintzak, ikuskizunak, eta abar. Otsailean eta martxoan

TOP30 meme lehiaketa egin dugu, euskarazko umorea interneten zabaltzeko lehiaketa.

Udaberrirako egitaraua prestatu dugu orain: maiatzaren 12an Erradikalak Gara ikuskizuna izango dugu Plate-ruean; maiatzaren 13an, berriz, familiei zuzendutako Txomorro magoa, kafe antzokian bertan; eta ekintza guztietan handiena, ekainaren 1ean egingo dugun URTEURREN JAIALDIA. Durangoko euskaltzaleak batzeko bazkariak gain, Berbaroren urteurreneko irakurketa eta kultur ikuskizunak izango ditugu, giro ezin hobean. Laster jarriko ditugu bazkariko tike-tak salgai; bitartean, gorde data eta zabaldu inguruko artean.

Ez genituzke lerro hauek amaitu gura zuei, bazkide guztiei, eskerrak eman eta 30 urte hauek zuek barik posible izango ez lirakeela esan barik. Horregatik, animatzen zaituztegu ekainaren 1eko egun handia eta bestelako ekintzak antolatzera, proposatzera, egitera; zenbat eta Berbarotar gehiagoren artean egin, orduan eta urteurren handiagoa edukiko baitugu. Aprobetxa dezagun urteurren hau Berbaro durangarren artean hedatzeko, euskararen aldeko hautua eraitzeko eta geroa aldean daramagula erakusteko.



“Polita izan da “nire ume” izandakoekin hezitzaile jardutea”

GORKA MADRAZO ORTUZAR. Urte asko egin dituzu Berbaron lanean. Zer bizipen duzu gogoan?

Oroitzapen ederrak dauzkat, pilo bat ikasi dut. Proiektu oso desberdinetan egin dut lan, beti euskara mugarri: institutueta motibazio saioetan, udalekuetan, bileretan, eskulanean... Jende asko ezagutu dut, eta oso lan aberasgarria izan da.

Gogoan ditut kreatibo jartzen ginenean, lotsak ahaztu eta guztiz motibatuta bideo xelebreak egin genituenekoak edo dantzan jartzen gineneakoak... zelan edo halan eragingo zuelakoan. Oso polita izan da baita, “nire ume” izandakoekin orain hezitzaile jardutea. Erreleboa indartsu dator!



“Heldutzen lagundu nau Berbarok, nire bilakaera ikusi du”

MARKEL ZUGAZARTZA ARAMBURU. Urteak daroatzazu Berbarogaz hartuemonean. Zer ikasi duzu bertan?

Gogoan dut Berbaro ezagutu nuen eguna; 2009ko uztailaren 14a, bezperan nire urteguna izan zen, horregatik gogoratzen dut egun zehatza. Urduri nengoen, nire lehen aldia zen familiaratik hainbeste egun banatzen nintzena. Autobuseko leihotik agur esan nion amari, baina autobusak abiadura hartu bezain pronto Berbarok bere familian jaso ninduen. 10 urte pasa dira geroztik, baina gure harremana ez da eten. Heldutzen lagundu nau Berbarok, nire bilakaera ikusi du eta hezitzaile sortu nau. Txikitan beraiengandik jaso dudana guztia ematen saiatzen naiz gaurko ume eta gazteei.



“Euskara elkarteek konpromiso bakarra dute: euskara eta herria”

IDOIA ORMAETXEA IRLETA. Oraindik Berbaro lako euskara elkarten beharra daukagu?

Halako elkarteak ezinbestekoak ditugu Euskal Herrian, herritarren ekimenetik sortutako kultur elkarteak direlako. Herritik eta herrirako: horretantxe datza ekiteko eta eragiteko duten ahalmena.

Zuzen-zuzenean hautematen dituzte herriaren premiak, ahulguneak eta indarra, eta oinarri horretatik abiatuta egituratzen dituzte ekintzak eta egitasmoak. Elkarte libreak dira; ez daude administrazio edo alderdiei kateaturik; konpromiso bakarra dute: euskara eta herria. Euskararen berbaroa zabaldu, euskara itzartu eta euskaraz olgatu dezan Herriak.



“Euskara sentimendu positiboekin lotzen da Gureanen”

IGONE USANDIZAGA IRURETAGOIENA. Zarautzetik etorrita, Durangon Berbarogaz egin duzu topo eta Gurean Euskaraz egitasmoan zabilta lanean. Horrelako espazioen premia dago?

Bai. Gustatzen zait Gureaneko umeekin parkera joatea eta parkeko umeekin jolastea. Modu horretan jolasa euskararekin erlazionatzen dute eta jolasaren bitartez euskara sentimendu positibo batekin lotzen dute. Euskara ikastea ez da bakarrik aditzak erabiltzen jakitea, argi dago. Baina umeek euskara eskolako lanekin, azterketekin edo aditzekin lotzen dute. Euskara derrigorrezko lan bat gehiago dela sentitzen dute eta eskema horrekin puskatu behar da.



“Urte batzuetara neure burua hezitzaile gisa ikusten dut”

LUANA DEL HOYO SANDOVAL. Umetan udalekuetan hasi zinen, gerora Itzartu gazte taldean ere parte hartu izan duzu. Zerk engantxatu zaitu?

Berbaroko hezitzaileok daukaguen irudimena jolasak, eskulanak, tailerrak eta abarrak egiteko. Sortzen den giroak ere erraz engantxatzen gaitu. Gainera, gu baino nagusiagoek parte hartzera animatzen gaituzte, ekintzak gomendatuz, euren esperientziak gurekin elkarbanatuz... Hezitzaileekin sortu dugun harremana oso ona da, konfiantzazkoa.

Ahal dudana bitartean Berbaroren ekintzetara joango naiz, eta urte batzuetara nire burua hezitzaile gisa ikusten dut Itzartun eta udalekuetan.



“Lehenengo antzeko gotorlekuak bilatu behar ditugu plaza berrietan”

INAZIO ESPINOSA ZARRABE. Azken 30 urteotan zelan aldatu da euskararen egoera?

Lehen, inguru zakarra sufritu genuen, eta aurrera egiteko babeslekuak bilatu behar: ikastolak, tabernak, politika, lagunak, ekintzak... leku haiek euskararen gotorleku bihurtu dira: Ikastola, Anboto, Plateruena, Berbaro eta beste asko. Zorionez, gune horietan gazte trebatu eta kementsuak ari dira etorkizuna aseguratuz. Euskara jalgi da plazara. Orain, beste plaza batzuk sortu dira: ikus-entzunezkoak, Internet, lantokiak... Nahi badugu euskaldundu gure bizitza, lehiatu behar dugu horietan ere, lehenengo antzeko gotorlekuak bilatu. Langileen % 70, adibidez, zerbitzu enpresetan dabil lanean. Ez litzateke txarto egongo Durangoko zerbitzu gehienak belarriprest bihurtzea lortuko bagenu.

“Urteurrenak Berbaroren lan zurrunbiloan murgiltzeko aukera eman dit”

Urtarriletik lankide berria dugu Berbaron: Garazi Barrenetxea Uriarte (Gernika-Lumo, 1986). Amankomunazgoan dabil, euskara teknikari.



Zelakoak izan dira laneko lehen hi-leak?

Une aproposalen hasi naizela esango nuke, izan ere, aurtan, 2019-2022 epealdiko lan markoa diseinatzea toka-

tzen da. Prozesua hasieratik bititzeak denbora gutxian asko ikasteko aukera (eta premia!) eman dit.

Hainbat egitasmo kudeatzen hasi zara. Zein da zuretzat interesgarriena?


Aurtengo egitasmo gehienak aurretik ere garatu dira. Azken batean, zerbitzuak bere martxa propioa dauka eta ni, momentuz, inertzia horretara batu naiz. Hala ere, erronka handiena erakunde barrura begirako lana dela uste dut.

Gernikan zelako osasuna du euskarak? Hemengoaren antzekoa da?

Ezagutza handiagoa da Busturialdean: biztanleriaren % 74 da elebiduna, Durangaldean, % 52. Erabilerari dagokionean ere, panorama hobea da gurean: herritarren % 43k dute euskara etxeko hizkuntzatzat, hemen, % 20k. Hala ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea handia da bietan. Horra hor landu beharreko errealitatea.

Urte berezian ezagutu duzu Berbaro. Urteurrena, batzar piloa... zelan bizi duzu hori?

Urteurrenak Berbarok bizi duen lan zurrunbiloan murgiltzeko aukera eman dit. Dinamika horri zein kideen gertutasunari esker, lantaldearen parte sentitu naiz hasieratik.



Ilustrazio mundurako sarrera

Irati Eguren Arrutiren eskutik, ilustrazio munduan murgiltzeko ikastaroa izan dugu otsailaren 27tik apirilaren 3ra. Ilustrazioan esperientzia dutenak eta esperientziarik izan ez dugun 20 pertsona batu gara Pinondo Etxean, motibazioz, ilusioz eta ikasteko gogo handiarekin.

Inguruan ez dago horrelako ikastaroak egiteko aukera askorik eta are gutxiago euskaraz. Horregatik, Berbarotik garrantzitsua iruditu zitzaigun ikastaroa antolatu eta durangarrei aukera hau zabaltzea.

Esperientzia ez da beharrezkoa izan. Erretratuari eta autoerretratuari loturiko gaiak landu ditugu, berau baita pertsonaiak sortu ahal izateko eskura dugun tresna garrantzitsuenetako bat. Erretratutik abiatuz pertsonaia ezberdinak nola sortu ikasi dugu, testurekin jolastu dugu, eta pertsonaiak sekuentzian jarri ditugu. Hori guztia, espazio eroso, goxo eta dibertigarria sortuta lortu dugu.

Arantza eta arrosa 30 urteetan

Arrosa lore usaintsua eta ederra izan arren, koloredun korolaz gain, arantza betetako zurtoina ere bada. Berbarotarra aldizkariko ‘Arrosa eta arantza’ atalean arrosa moztu diegu eta korolatu egin ditugu euskarako guretzat jarrera txalogarriak izan dituztenak. Halaber, arantzaren ziztada jaso dute euskara lehen-tasuna ez dela sinesten duten horiek.

Eta horrela, 30 urte igaro dira jada, txaloka eta txistuka; egoera asko hobetu bada ere, hamaika aldatzeko dago oraindik eta. 30 urteurrena ospatuko du Berbarok, ez gara bakarrik, 35 urte beteko ditu AEDK

(Arrasate Euskara elkartearen mugimendua) eta 25 Txatxilipurdik, besteak beste.

Espazio txikian lanean dihardugu, helburu mardulak lortu guran, antza. Guretzat oinarri-oinarrizkoa dena –euskara herrian presente egotea– batzuentzat ez da horrela, eta jarrera horrek bizitza paraleloa edo mikro-mundua gurea dela sinestarazten digu askotan.

Kontrako haizeak datoz arantzak astinduz, baina arrosekin topo egingo dute, *menpeko perpausa ez garelako* aldarrikatuz.